



Prentsa Oharra Nota de Prensa

Eskola kirola irailaren 28an hasiko da; ez da lehiaketarik izango, eta entrenamenduetan kontaktu fisikoa mugatu beharko da

Egoera epidemiologikoak hobera egiten duen heinean, lehiaketei berriro ekitea planteatuko da, baina ordura arte ezin izango da partidarik, txapelketarik, topaketarik edo antzekorik egin

Gasteiz, 2020ko irailaren 22a. Ana del Val Kultura eta Kirol diputatuak jarraibideak eman ditu 2020-2021eko Eskola Kiroleko Programa irailaren 28tik aurrera hasteko. Hala jakinarazi zien atzo, bideokonferentzia bidezko bilera batean, eskola kirolaren programa garatzen duten Arabako kirol federazioei, zeinek duten esperientziaren eta ezagutza teknikoaren bidez kirol modalitate bakoitzaren protokolo espezifikoak egiten lagundu baitute.

Horrela, izena emateko baldintzak betetzen dituzten erakundeak irailaren 28tik aurrera hasi ahal izango dira entrenamenduekin. Entrenamenduekin kontaktu fisikoa mugatuta egin beharko dira; ezingo da ikuslerik izan; ezingo dira aldagelak erabili –jarduera dela eta derrigorrezkoa izan ezean–, eta ezingo da lehiaketarik egin.

“Bizi dugun salbuespenezko egoera dela eta – Adierazi du Ana del Valle –, jardueraren hasiera atzeratu dugu, zuhurtziagatik eta parte hartzen duten eragile guztiak hobeto egokitu daitezen, baina beti egin dugu lan eskola kirola egon dadin, ikasleentzako onura emozional, sozial eta motor ukaezinak dituelako”.

“Hori bai, diziplina bakoitzari egokitutako protokolo batekin hasiko da eskola kirola, eta praktikan talde burbuila egonkor bihurtuko diren entrenamenduekin. Izan ere, une honetan kirol jarduera kontrolatua izatea eta jarraipena egin ahal izatea garrantzitsua da, horrela talde heterogeneoagoen arteko interakzioa saihesten baita”, adierazi du.



Prensa Oharra Nota de Prensa

“Egoera epidemiologikoak hobera egiten duen heinean, lehiaketei berriro ekitea planteatuko da”. Horrenbestez, ordura arte ezin izango da partidarik, txapelketarik, topaketarik edo antzekorik egin, ez ezta “lagunarteko” direlako jarduerak eta teknifikazio jarduerak ere.

Aurrekariak

Abuztuaren 11ko 178 eta 179/2020 foru aginduek, joan den abuztuaren 24an argitaratuak, 2020-2021eko eskola kiroleko denboraldiari “irteera eman” zioten. Hala ere, abuztuaren amaieran, eta Eusko Jaurlaritzak egindako eskaerari erantzunez, Arabako Foru Aldundiak kanpainaren hasiera atzeratzea erabaki zuen, ikasturte berriaren hasierara egokitzeko eta modu lasaiagoan eta progresiboagoan hasteko, haurrek ikasgeletatik kanpo sei hilabete igaro ondoren. Gainera, horrela, eskola kirolaren programan parte hartzen duten erakundeei denbora eman zien jarduerak prestatzeko eta protokoloak betetzeko.

Horiek horrela, irailaren 2an, Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak "Covid-19aren aurrean jarduteko arau orokorrak" bidali zizkien kirol erakundeei. Arau horiek Eskola Kirolaren Euskal Batzordean adostu zituzten hiru foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak 2020-2021 denboraldirako.

Hona hemen zer jasotzen duten:

- Erakunde guztiek izan behar dute Covid-19aren aurka jarduteko protokolo bat.
- Osasun arduradun bat izendatu behar dute erakunde guztiek, eta haren eginkizun nagusia izango da zaintzea erakundearen barruan Covid-19aren aurka jarduteko protokoloa betetzen dela.
- Parte hartzaile guztiek (arduradunak, teknikariak, familiak eta tutoreak) erakundearen Covid-19aren aurkako jarduketa protokoloa onartzeko akordioa aurkeztu behar dute.
- Begirale, entrenatzaile eta/edo taldeen ordezkari guztiek egin behar dute eskola kirolean Covid-19a prebenitzeari eta segurtasunari buruzko doako online ikastaroa. Araban 978 pertsonak hartu dute parte ikastaro horretan.

Administrazio prozesua, aitzitik, ez da atzeratu. Horrela, izen emateak, aurreikusitako bezala, irailaren 7an hasi ziren. Eta hala, erakundeek eskola kiroleko kanpaina honetan parte hartu ahal izateko baldintzak betetzen dituztenean, kirolariak inskribatuko dira, eta programari hasiera emateko baimena emango da.



Entrenamenduen baldintzak:

Eskola kirolaren programan parte hartzen duten erakunde guztiei helarazi zaien jarduketa protokoloak honako hauekin lotutako arauak jasotzen ditu: prebentzio eta higie-ne neurriak, maskaren erabilera, osasun egoeraren kontrola eta gaixotasun kasuetan nola jardun, jarduerak, osasun arduraduna, langile teknikoak, prestakuntza eta dibulgazioa, joan-etorriak, sariak ematea, edukiera, gizarte desabantaila duten kolektiboen babesa, zehapen araubidea, jarraipena etab. Hona hemen arauetako batzuk:

- Aire zabalean entrenamendu fisikoak egitea lehenetsiko da.
- Une bakoitzean ezarritako gehieneko entrenamendu taldeak eta edukiera errespetatu beharko dira.
- Entrenamendu txanden artean garbitu eta desinfektatu egin behar da.
- Banakako entrenamenduekin hasi behar da (batez ere prestakuntza fisikora eta lesioen prebentziora bideratuak), eta pixkanaka talde txikiak edo postu espezifikoen arabeko entrenamenduak egin ahal izango dira, eta, azkenik, talde osoa integratu ahal izango da (taldeko kirolen kasuan).
- Kirol jarduera egiten den bitartean ahal den guztietan, gutxieneko segurtasun tarteak utzi beharko dira, kirolarien artean elkarreragina egon behar dela uste den uneetan izan ezik.
- Entrenamenduen sarrera eta irteeretan, pertsonen arteko distantzia 1,5 m-koa izan beharko da.
- Entrenamenduak atak itxita egin beharko dira, eta, beraz, ezingo da ikuslerik izan.
- Materiala partekatuz gero, gomendatutako higie-ne eta garbiketa neurriak aplikatu beharko dira.
- Aldagelak, oro har, ezingo dira erabili, salbu eta modalitate jakin bat gauzatzeko beharrezkoak badira (igeriketa, adibidez).
- Nahitaezkoa izango da maskara une oro erabiltzea, kirola egiten denean izan ezik.

Eskola garraioa:

Arabako Foru Aldundia da eskola partaideei garraioa eskaintzen dien bakarra, bai entrenamenduetan, bai lehiaketetan. Hainbat gomendio hartu beharko dira kontuan joan-etorrietan: kirolariek autobusean eserleku finkoak izatea, bizikidetzat talde bateko kideak gertuko eserleketan egotea eta autobus bakoitzean garraiatzen diren



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prensa Oharra Nota de Prensa

haurren zerrenda egitea eta autobusean duten lekua idaztea. Derrigorrezkoa izango da maskara une oro erabiltzea.